

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2013ko uztailaren 16a. IX. urtea. 2.628. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Irura Txukunek udala «gor, itsu eta mutu» aritu dela salatu du

Amasa-Villabonako EAJk mozioa aurkeztu du udalean «erreketa eta galdeketako mehatxuak» gaitzetsi ditzaten eskatuz **02**

## Juan Joxe Lizaso eta Ainara Otamendi, segan azkarrenak

Zizurkilen jokatu den Gipuzkoako Azkartasunezko txapelketa irabazi dute Lizaso asteasuarrak eta Otamendi ibartarrak **06**

## Joxean Tolosa Pilota Txapelketako lehen partidak jokatu dituzte

Zazpi Iturri elkarteak antolatu du XXIV. Joxean Tolosa txapelketa; kadete, gazte eta nagusien mailako zortzi partidetan lehiatu dira pilotariak **07**

## Alegiako Txintxarri Saria Otaño eta Izetatarrek eskuratu dute

Otaño, Izeta II.a eta IV.ak, mendean hartu dituzte, Otaegi, Irigoien eta Lopetegi; 37 minutu eta 30 segundo behar izan dituzte garaileek **06**



→ **Azkena, Karmen eguna.** Alegiarrak ostegunaz geroztik jai giroan murgilduta dabiltza, eta atzo haurrak izan ziren protagonista. Beraiei begirako egitaraua izan zuten, eta arratsaldean Poxpolo eta konpainia pailazoaren emanaldia —irudian— izan zuten. Gaur, eta jaiak hurrengo urtera arte agurtzeko Karmen eguna ospatuko dute **04**

ITZEAURRIZU



## XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia  
[thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info)  
helbidera!



Sari mundialak!





Irura Txukun plataformaren agerraldira hainbat irurak azaldu ziren babes ematera. I. TERRADILLOS

## Irura Txukunek salatu du Bildu herria engainatzen ari dela atez ateko datuekin

Orain arte egindako protestak «alferrik» izan direla salatu dute; udala «gor, itsu eta mutu» aritu dela diote

**Iñigo Terradillos** Irura

Irura Txukun plataformak esker-erak eman dizkie Irurako atez atekoaren inguruko galdeketa parte hartu zuten herritar guztiei, eta era berean, kontsultaren aurreko astean jasandako «boikot eta presioa» salatu ditu. Horrez gain, Irurako Bilduk atez atekoaren inguruan emandako datuekin «herria engainatzen» duela adierazi du.

Bosgarren edukiontzia aldeko Irurako bizilagun taldeak adierazi duenez, «udalaren atez ateko sistemaren inposizioaren aurrean sortutako egonezina dela eta», sortu da plataformak.

euren helburua ez dela liskar politikoetan sartzea azaldu dute: «nahiz eta, sinesten dugun liskar horiek direla eztabaidaren iturri, eta askotan gertatzen den moduan, eztabaidaren kalteak herriak jasaten ditu».

Birziklapenaren alde daudela adierazi dute, baina egokiago ikusten dute hondakinen bilketa edukiontzi bidez egitea, ez baitiote justifikaziorik ikusten «sistema garestiago, zikinago eta deseroso-agoa» jartzeari. Halaber, Irura Txukun plataformari «ulertezina» egiten zaio «eskualdean hainbat herrik edukiontzia ereduarekin jarraitzen badu, Irurak zergatik aldatu duen».

Honen harira, egin dituzten protesta guztiak «alferrikakoak» izan direla salatu dute, Irurako Udala «gorra, itsu eta mutu» bilakatu baita euren ustez. Gainera, Iruran egindako kontsulta egin ahal izateko, plataformako kideek «lan handia» egin beharra izan dutela,

eta «behin eta berriz boikotatu» izan dela adierazi dute: «Hala ere, Irurako %40k eman du bere iritzia, nahiz eta kontroladoreen aurretik pasa beharra izan duten».

Kontsultak izan duen erantzunarekin «pozik» dago Irura Txukun plataformak, «parte hartu dutenen %90ak baino gehiagok bosgarren edukiontzia aldeko hautua egin duelako». Era berean, euren itxaropena «zapuztua» geratu dela gehitu dute, «udalak kontsultaren emaitza bere interesen alde jarriz makilatu baitu».

Bilduri mezua bidali dio Irura Txukun plataformak: «Herriko bakoik zabor poltsaz beteta dituzue, bizilagun askok ez dute oraindik ontzia jaso, eta hala ere, zuen balantzea da lehen bi egunetan %70a birziklatzea lortu dela? Herri ordezkariek bazarete zergatik engainatzen duzue herria?».

Euren aldarrikapen eta kekek Arartekoarengana jotzeko asmoa dutela adierazi dute plataformatik: «gure ahotsa entzun, eta ea norbait zentzuz jokatzeko».

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

## EAJk «mehatxuak eta erreketak» gaitzesteko eskatu dio udalari



Pasa den astean edukiontzia erre zituzten Amasa-Villabonan. HITZA

Amasa-Villabonako jeltzaleek mozioa aurkeztu dute udalean, honek «jarrera hardezan» eskatuz

**I. Garcia Landa** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako EAJko zinegotziek mozio bat aurkeztu dute, udalari «jarrera hardezan eskatuz eta atez atekoaren inposizioaren aurkako herri galdeketa prozesuan egondako mehatxu eta hertsatzeak, eta edukiontzien erreketak gaitzetsi ditzan». EAJk bere elkartasuna adierazten die suaren eragina jasan duten bizilagunei, baita Patxi Agirrerri eta Patxi Amantegiri ere, «Sortuk bidegabeki gertatutakoaren ardura leporatu izanagatik».

Mozioak bost puntu ditu. Lehenengoak, «Amasa-Villabonako herri galdeketa egin bitartean herrian eman diren mehatxu eta indarkeria mota guztiak» salatzen ditu. Bigarren puntuan udalbatzari eskatzen dio «gaitzetsi ditzala hamarkada hauetan Amasa-Villabonako herrian gertatu diren sabotaje, herri altzari txikitze eta edukiontzi erreketak guztiak». Zinegotzi jeltzaleek exijitzen dute

udalak gaitzetsi ditzala, «zalantzarik gabe», Amasa-Villabonan uztailearen 6ko edukiontzien erreketak eta gertatutakoak eta horren arduradunak nortzuk izan diren ikertzeko eta argitzeko.

Bestalde, udalbatzari eskatzen diote «bere elkartasuna adierazte suaren eragina jasan duten higitzen jabeek eta bere esku dagoena egiteko borondatea adierazte ahal den neurrian kalteak erparatzen laguntzeko».

EAJk mozioaren hitzaurrean azaldu duenez, «hiri hondakinen bilketa gai polemiko bilakatu da legealdi honetan, Gipuzkoan, orokorrean, baina Tolosaldean, batez ere». Zizurkilen, Amasa-Villabonan, Anoetan eta Iruran berriki «hiri hondakinen bilketari buruz egin diren herri galdeketa, hauen entzute ona galarazteko, Bildukoek aurreko egunetan burutu dituzten ekintzaz baterik egon dira. Jarrera honek herritarren parte hartzea zailtzeaz harago, tentsio eta amorru giroa sortu du herrian».

EAJk gaineratu duenez, «Bildu herri galdeketa legekoak ez direla izan zabaltzen saiatu da eta honek udal gobernuaren aldeko erabakia bultzatu du, Villabonako herritarrek demokratikoki azaldu duten nahi legitimoari kasu egin beharrean, atez atekoaren inposizioarekin jarraitzea erabaki du, Amasa-Villabonatarren gehiengoak argi eta garbi ukatzen duten sistema».

EAJk azaldu duenez, «testuinguru horretan, eta herrian bizi dugun tentsio giroa baretu beharrean, uztailearen 6ko gauean, hondakinak gaika biltzeko lau edukiontzi erre zituzten Amasa-Villabonan».

• [villabona-aiztondo@hitza.info](mailto:villabona-aiztondo@hitza.info)

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

### ↓ Iragarki laburrak

#### LANA

**Etxeko lanak.** Goizetan etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesatuak deitu: 943 69 6882 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara.

#### LANA

**Garbitasuna.** Hauze Garbitasunak enpresak bere burua eskaintzen du garbiketa orokorrek egiteko: etxeak, bulegoak... Aurrerontua eskatzeko edo informazio gehiagorako deitu: 681 152494 telefono zenbakira.

## Oporrak



### Bioingentasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Gezurra badirudi ere, denboraldi hau amaitu dugu. Hauxe da aurtengo azken zutabetxoa. Idatzitako artikulu guztiei begiradaxo bat bota eta badago bai zer irakurria... 20 artikulutik gora aurten! Urte hone-tan gai ugari idatzi dugu, txoriak, ugaztunak, landareak, mikroorganismoak eta ehunka bizidun igaro dira zutabe honetatik.

Topatu eta ezagutu nauten jende askok, galdera ugari egin dizkide, batez ere idazteko dudak ohiturengatik. Horregatik, azken artikulua, duda hauek argitze-ko izango da. Gaur zutabe-animaliak eta landareak espero bazenitu... sentitzen dut!

Askok galdetzen didate ea zenbat denbora ematen didan artikulua bat idazteak, egia esan, ordu eta erdi exkax. Zailena, zer idatzi pentsatzea da, eta hau ez da ordu eta erdi lana, hau 24 orduko lana da.

Beti daramat koaderno eta arkatx bat nire alboan, inoiz ez dakizu noiz eta zerekin etorriko zai-zun inspirazioa. Bi astero zerbait ininteresgarria, aktualitatearekin lotura duena eta ulertezaz dene idazteak badu bere lana.

Zorionez bizidunek, joko asko ematen dute. Artikulua entregatu aurreko bi egunetan inspirazio faltan zaudela? Atera kalera momentutxo bat eta ziur zure pare-tik hegazti interesgarri bat igaroko dela edo zuhaitz berezi bat topatuko duzula, edo agian gurutzatzen zaren gizon hark Neantherthal baten itxura dauka-la... beti dago zer idatzia, aurkitu egin behar.

Behin gaia aukeratu idaztea falta da. Horretarako metodolo-gia bat daukat. Ahal bada goize-tan idazten dut hiru fasetan zehar. Lehenik gaiari buruz dakidan guztia paragrafo handi batean idazten dut. Behin para-grafo handi hau eraikita, eskultu-ragile baten antzera, lana fintzen hasten naiz. Zerbait kendu, tonua

aldatu, esaldi bat gehitu, ordena aldatu eta behartzen didaten lu-zerara egokitzen dut. Azkenik, lau aldiz ozen irakurtzen dut eta berriro zerbait kendu, beste zer-bait gehitu, esaldiak aldatu... Gai-nera, artikulua argitaratzen de-nean, argitaraturik dagoen for-matu originalean irakurtzea gustatzen zait. Izan ere, idatzita-koaren itxura asko aldatzen da or-denagailuko pantailan egon edo jada egunkari baten barruan egon. Eta bai, idatzi ditudan arti-kulu guztiak gordeta daude, ba-koitza bere datarekin txukun txu-kun.

Idazten ditudan gaiak, gertuko-ak izatea atsegin zait. Alderdi ho-rretatik, aurten zorte handia izan dut konpostajearekin. Behingoz, konpostajea eta hondakinen ku-deaketa arrazionala iritsi da Tolo-saldera eta nire irakurleen ia gehiengoak jada konposta egiten du etxean, aupa zuek... konposta-zank!!! Konposta egitea ez da lan makala eta askotan duda ugari sortzen dira, benetan baliogarria izan delakoan nago zutabe xume honetan konpostajeari buruz idat-zi dudak guztia.

Jende askok aipatzen dit ere, artikuluek umore puntua badu-tela, noski baietz, bizidunak di-bertigarriak dira! Gezurra badi-rudi ere, ekosistemek, mikroorga-nismoek, artropodoek eta bestelakoek ez dute zertan asper-garriak izan beharrik eta gainera, biologo bat ez da egun osoa ira-kurtzen eta intsektuak biltzen ibiltzen den bizardun zoro bat. Gainera beharrezkoa ikusten dut, 5 minutu exkaxean irakurri ahal den zutabe honek, irakaste-az gain, dibertigarria izatea. Az-ken finean zutabe hau zorionez jende arruntak irakurtzen du, zu-tabe hau ez doa Europako biolo-goan aldizkari ofizialera. Artiku-lu hauek aurpegi serioarekin hasi behar dira irakurtzen eta irriba-rre batekin amaitu!!!

Orain oporrak datoz, sorbel-tzak habiak egiten hasi dira, in-tsektuak pil-pilean daude eta ugaztun asko bikotekidea aurkit-zen hasi dira. Baina zutabe xume hau baso batean barneratuko da, zuhaitz zahar baten zulo eroso ba-tean sartuko da eta udako loz-roa burutuko du. Hurrengo urte-an berriro aterako al da? Nor-k daki!

Bitartean, izan opor denboraldi on bat. Atera mendira eta ikusi hegaztien hegan egiteko modu ez-berdinak, aztertu harrien azpian dauden intsektu motak, ukitu zuhaitz ezberdinen enbor azalak eta batez ere, erakutsi guzti hau etxeko txikiel. Etorkizun batean beraietako batek idatziko baititu honelako artikulua.

Mila mila esker orrialde horren atzean dauden guztiei, azken fine-an zuek gabe ez ziren artikulua guzti hauek nire burutik aterako.

## Irudia Tolosa



## NORANZKO BAT ERABILGARRI

Tolosako Larramendi auzoko lurperatzearen lanak amaitzeaz daude, eta besteak beste, atzotik aurrera lurperatzearen azpiko bideetako bat erabilgarri dago; N-1 errepidetik Tolosara sartzen diren ibilgailuek bide berria hartuko dute. Beste noranzkoak, berriz, itxia jarraituko du oraindik, zen-

bait lan falta baitira urbanizatzea amaitzeko. Azaldu dutenez, ezinezkoa litzateke lan horiek amaitzea, bi noranzkoak irekiko balira. Honenbestez, Tolosatik N-1era ateratzeko, Uzturre kaletik igaro beharko dute ibilgailuek, orain arte bezala. HITZA

## Euroaginduaren aurkako eskutitza Barne ministroari

Manuel Valls Frantziako Barne ministroari eskutitzak bidaltzeko eskatu dute Ibarra Sortutik

Erredakzioa Ibarra

Jokin Aranalde iheslari gazteluarren aurkako euroagindua salatze-ko kanpaina jarri dute abian Ibarra. Manuel Valls Frantziako Barne ministroari eskutitzak bidaltzeko eskatu dute Sortutik, eta horretarako egin beharreko urrats guztiak azaldu dituzte. Bidali beharreko gutuna ere zintzilikatu dute [sortu.net](http://sortu.net) eta [\[sortu.blogspot.com.es\]\(http://sortu.blogspot.com.es\) webgunetan. Aranalderen aurkako euroagindua eskaria salatzearekin batera, Aitor Zubillaga eta Ibon Fernandez Iradirenak ere salatu dituzte. Manuel Valls-i «konpon-bide garaia» dela esan diote sortu-tik, eta Espainiaren eskaria ber-tan behera uzteko eskatu diote.](http://ibarrako-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

### Batzar informatiboa, gaur

Paueko epaitegiak uztailaren 16an jakinaraziko du hiru euskal herritarren inguruko erabakia. Euroagindua onartu edo ez, Ibarra batzar informatiboa egingo dute bihar, 19:30ean, plazan. Ibarra Sortutik eskualdeko herri-tarrak gonbidatu dituzte batzar informatibo horretara.

## → Laburrak

### Herriko festak antolatze-ko bilera, bihar, 21:30ean

**ELDUAIN** ▶ Elduaingo Udala irai-lean ospatzen dituzten herriko festak antolatzen hasita dago, eta horretarako hirtzordia aste-azkenetan jarri dute. Herriarrek atek zabalik dituzte antolake-ta lanetan parte hartu nahi izanez gero. 21:30etik aurrera elkartzeko dira herriko Urdelar elkarteak.

### Haurren danborradako entsegua, gaur, Ibarra

**IBARRA** ▶ San Bartolome jaieta-ko danborradako prestaketak aurrera doaz, eta izena eman duten gaztetxoek gaur, 20:00etan, izango dute biga-rren entsegua Belabieta kirol-degian. Hurrengo entsegua, hilaren 23an izango da, toki eta ordu berean.

## Patxi Amantegi Tolosaldea Txukuneko Bozaramailearekin ZUZENKO ELKARRIZKETA

Uztailak 18,  
osteguna  
20:00etan

Bidali zure galderak:  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)  
edo  
@hitzatolosaldea



Ikusi [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) edo [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) webgunetan edo entzun [txolarre irratian](http://txolarre.irratian)

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**



Ostiralean txintxarria jaitzi zuten Alegian, eta gaur amaituko dira Karmenak. Atzo, herriko gazte txoen egun handia izan zen.

# Karmenak azken txanpara iritsi dira

### Itza Urkizu

Ostiralean eman zuten hasiera, alegiarrek, aurtengo Karmen jaiak. Asteburuan berriro ere dute musika, dantzaren nahiz jan-edanaren falterik izan, eta bost eguneko egitarauarekin, gaur bertan amaituko dira festiak. Atzo, alegiar gazte txoen txanda izan zen, eta euren begirako jarduerak izan ziren herriko egun osoa.

Goizean goz, diana gazte txoen esku izan zen atzokoan, eta Loitzo musika eskolako ikasleek zabaldu zuten musika herri osoan. Goiz erdialdean, berriz, jolasak izan zituzten eskolako patioan, eta tokan, sokatiran nahiz bolean aritu ziren neska mutilak.

Eguerdian, berriz, haurrentzako bazkaria izan zuten, udal txeko arkupeetan, eta segituan amaitu zituzten bazkari legeak. Jolasean aritu eta gero, play back saioan gozatu zuten ume alegiarrek, eta Poxpelo eta Koopainia pailazoekin borobildu zuten eguna.

Aurtengo karmenak abiarazteko ardurua Alegiako txistulariek izan dute, eta euren jaurti zuten ezuria, ostiralean. Hamabost urte pasa dira, taldea osatu zuten zengorriak, eta kido guztiak elkarri ziren udal txeko bolantean. Horien aurretik, jasetako marrazki lehiaketako irabazleak izendatu zituzten, eta burubandiak eta erraldoiak ere plasmatu zituzten.

**Azken eguna, egun handia.** Gaur izango dute, alegiarrek, Karmenestako egun handia, eta dianaren ondoren, 343 saskibaloi txapelketa egingo dute, eta erretiroarekin, mesaki ibilaldi egiteko anker izango dute. Ondoren, martxiaren saioa ere izango da, eta bazkalondoren jarraituko dute okitaldiok, ume jolas eta merien darenkin.

Ituntzean, berriz, Isidro Larrañaga akordeoi orkestraren emandako naldia izango da plaza, eta afari-tarako zahagi ardo izango dute. Jaiak erromeria giroan amaituko dituzte, Kupa la taldearekin, eta gauerdiaren txintxarrien hotsarekin agurtuko dituzte festiak.



Ostiralean hasitako jaiak gaur amaituko dira Alegian; hauren eguna izan zen atzo. (2)ZAKARI

### Alegiako Karmen jaiak

#### HILAK 16, ASTEARTEA

- 09:00. Giroarte dultzaina taldeak abiatuko dira.
- 09:00. 343 Saskibaloi Txapelketa eskolako patioan. Infantari eta alebin mailakoan arituko dira.
- 12:00. Los Tenapashinukote mariatxiaren emanaldia plazaan.
- 18:00. Ume jolasak eta merienda plazaan.
- 19:45. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren emanaldia plazaan.
- 21:00. Zahagi ardo plazaan.
- 22:30-01:30. Kupa la taldearen esku txistularien emanaldia plazaan.
- 00:00. Txintxarrien hotsarekin jaien amaierako Agura izango da.



Sabela betez nahiz kirola eginez, lagunartean asteburua pasatzeko aukera izan da asteburuan, Tolosan eta Zizurkilan.

# Lagunarteak duen xarma

### Itza Urkizu

Jaietan den asteburuan bezala, azken honetan ere ez da festarako arrazoirik falta izan Tolosaldean, eta horren erakusle dira, Zizurkilgo balsa eguna, Tolosaldeko skate lehiaketa eta Larremendiko auzoko txerri festa.

Goizean goizetik sukalde lanetan hasi ziren, larunbatean, zizurkilarrak. Izan ere, kalean bertan prestatzen dute, gero bazkarian jan behar dena guztia. Hori aprobetxatuz, gainera, egitaraua bete, eta sukalde lehiaketa ere izan zuten. Horrela, hainbat kuadrilla aritu ziren patatak errixar erara prestatuz, gero lehiari aritzen. Arratsaldean, erromeriaz gozatu zuten zizurkilgo balsek. Guzag taldearen eskutik.

Tolosan, Usahago skate parkean, berriz, ostiral ituntzean hasi zen jai giroa, skate erakustaldiaren ondoren barbaoko afaria egin baitzuten. Egun naharmena, ordea, larunbata izan zen, eta kanpaldia bertan egin zutenak, nahiz beste skatezale asko bertaratu zen lehiaketa eta erakustaldiarekin.

Sariak banatu eta gero, Kikara tabernako festan borobildu zuten skatezaleak, asteburua.

Azkenik, Tolosaldeko Larremendi auzoan ere lagunartean eman dute aste amari, txerri festa antolatuta eta ospatzen aritu baitira buru-belarri. Larunbat goizean hasi jolas eta toka txapelketarekin hasi zuten jaiak, eta bertan erretako txerria bazkaldu ondoren, ituntzean bitarte izan zen musika eta festa giroa.



Tolosa | Hinguzenez antolatu du aurtengoa, Tolosaldeko Skate Taldeak, txapelketa. (1)ZAK



Zizurkil | Patatak errixar erara prestatu zituzten zizurkilarrak. (1)ZAK



Tolosa | Plazan bertan ere zuten txerria, goiz goize, Larremendiko auzotarrek. (1)ZAK

**REALA-TOULOUSE**  
**Futbol partida**  
 Uztailak 20, larunbata • 19:00etan  
 Bidasoako Lorinako Futbol estadioan

**GARAGARDO AZOKA**  
 Uztailaren 18tik 20ra  
 Vilabarroko Txerri giroko Kestolan

**ITZARREK**  
 GAZTAKIEN AROA  
 VILABARRO

Zozketan parte hartzeko: 943 65 56 95 edo 943 65 56 95 edo 943 65 56 95

# Unai Otañok eta Izetatarrek irabazi dute Txintxarri Saria

Jon Rekondok eta Donato Larretxeak osaturiko bikoteak Nafarroako Aizkora Txapelketa irabazi du

## I. Terradillos

Unai Otaño aizkolaria ibartarrak eta Izeta II.a eta IV.ak osaturiko taldea izan da Alegian jokaturiko Txintxarri Sarian garailea. Talde aurkaria, hau da, gazteena Otaegi zizurkildarrak eta Irigoienek eta Lopetegik osatu zuten, baina, beterranoen aurrean ezin izan zuten ezer egin, proba guztietan atzetik joan zirelarik.

Harri-jasotzaileek lehendabizi 100 kiloko zilindro zaharrari 60 jasoaldi eman zizkieten, eta aizkolariek kana-erdiko enborra zutik eta beste bat etzanda moztu zituzten. Beteranoek 9 minutu eta 25 segundo behar izan zuten lan hori amaitzeko, eta gazteek 14 segundo gehiago.

Bigarren lanean, 100eko kopari 60 jasoaldi eman eta 45 ontzakoa zutik eta 60koa etzanda ebaki behar zituzten. Beteranoak izan ziren nagusi hemen ere, 8 minutu eta 6 segundo denborarekin. Gazteek 8 minutu eta 50 segundo behar izan zuten.

Hirugarren lanean, berri, 100eko kubikoari 45 jasoaldi

eman eta 80 ontzakoa ebaki behar zuten. 9 minutu eta 40 segundo behar izan zuten beterranoek, eta 17 segundo gehiago gazteek. Azken lanean, 100eko bolari 45 jasoaldi eman behar zizkieten, eta hiru kana-erdiko moztu. Beteranoen denbora 10 minutu eta 29 segundokoa izan zen, eta gazteena, 10 minutu eta 34 segundo.

Lan guztiak kontuan hartuta, beraz, 37 minutu eta 30 segundo izan zen beterranoen denbora, eta gazteena, 40 minutu eta 40 segundo.

## Rekondo txapelkun

Jon Rekondo leitzarra eta Donato Larretxea arantzarra dira Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketako irabazleak. Herenegun jokatu zen Iruñean finala, eta 14 segundoko aldearekin lortu zuten txapela janztea.

Rekondo-Larretxea bikotearekin, Nazabal-Erasun eta Senosiain-Lopez aritu ziren lehian, eta bakoitzak egin beharreko lana, sei kana-erdiko eta 60 ontzako ebakitzea izan zen. Bada, ikuskizun polita eskaini zuten aizkolariek saioaren hasieratik, izan ere, bikote irabazlea eta bigarrena, hau da, Nazabal-Erasun, parean ibili ziren saio osoan. Azkenean, 22 minutu eta 4 segundoko denbora behar izan zuten Rekondo-Larretxeak eta 14 segundo gehiago bigarrenekin.



Zizurkilgo Andrezketa baserri ondoko zelaian jokatu zuten herenegun Gipuzkoako Txapelketa. JONE AMONARRIZ

# Juan Joxe Lizaso eta Ainara Otamendi Gipuzkoako Segaitza Txapelketako garaileak

Euskal Herriko Segaitza Txapelketa jokatu dute asteburuan; lehen aldiz emakumezkoena antolatuta dute

## Iñigo Terradillos Zizurkil

Juan Joxe Lizaso asteasuarra eta Ainara Otamendi ibartarra izan dira Gipuzkoako Azkartasuneko Segaitza Txapelketako irabazleak. Herenegun arratsaldean jokatu zen txapelketa Zizurkilgo Andrezketa baserri ondoko zelaian, Ziotza kirol elkarteak eta Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatuta. Gizezkoetan 16 segalarit aritu ziren, tartean, 10 eskualdekoak, eta emakumezkoetan lau segalarit, denak eskualdekoak.

Lizasok bi minutu eta 56 segundo behar izan zituen lana amaitzeko, hau da, 100 m<sup>2</sup>-ko saila ebakitzeko. Bixente Mitxelena bigarren izan zen, 16 segundo gehiagorekin, eta Baliarraingo Jokin Garmendiak osatu zuen podiuma, 3 minutu eta 30 segundorekin. 16 segalarit emana zuten izena, baina Igor Esnaola, Jexux Goenaga eta Jexux Mari Ormaetxea Urki orendaindarrak ez zuten jokatu.

Emakumezkoetan, berri, Ainara Otamendi gailendu zen, 50 m<sup>2</sup>-ko bi sailak 4 minutu eta 57 segundotan ebaki zituelarik. Bigarren Alatzne Etxaburua zizurkildarra sailkatu zen, segundo bakarrera, eta hirugarren, Alaitz Imaz



Eskualdeko lau segalarit lehian. JONE AMONARRIZ

hernaldearra 5 minutu eta 31 segundorekin.

Bestalde, Jon Kanflanka leitzarra eta Juan Joxe Lizaso asteasuarra ariko dira datorren asteburuan Euskal Herriko Segaitza Txapelketan. Araban izango da, Lezeako zelaian, Zabalgun parkean, larunbatean, 18:00etan hasita. Bi segalariekin batera, Jexux Goenaga eta Igor Esnaola ariko dira lehian, ordubeteko saioan.

Zizurkilgo Areta baserrian, berri, Emakumezkoen Euskal Herriko Segaitza Txapelketa jokatu dute igandean, hilaren 21ean. 20 minutuko lana egin beharko dute Alatzne Etxaburua zizurkildarrak, Irati Astondoak eta Arrate Garinek. Estreinakoz jokatu dute emakumezkoen Euskal Herriko Txapelketa.

## ↓ Sailkapena

### Emakumezkoak

Ainara Otamendi	4:57
Alatzne Etxaburua	4:58
Alaitz Imaz	5:31
Ainhoa Galarraga	8:47

### Gizezkoak

Juan Joxe Lizaso	2:56
Bixente Mitxelena	3:12
Jokin Garmendia	3:30
Mikel Alkorta	4:30
Oier Urkola	4:40
Julen Gabirondo	4:46
Joakin Garmendia	5:02
Peio Argia	5:41
Mikel Arsuaga	5:51
Andoni Dorronsoro	6:07
Garikoitz Etxeberria	6:13
Iban Pardo	6:13
Unai Iraola	7:22

## Egin HITZAREN HARPIDEDUN

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:





www.barrenetxe.com

**sasoiko barazkien oterra**

Harpidedun egiten diren guztien artean

**Orduñako Aisia hotelean,**  
bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia  
**ZOZKATUKO DUGU**

Harremanetarako:  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info



## Irudia ◉ Tolosa



## SAN SEBASTIAN EUROPARA

Oriako-Limousin txirridulari taldeko Xabier San Sebastian tolosarra eta Lierni Lekuona lezoarra Europako Txapelketan izango dira, Espainiako selekzioarekin. Uztailaren 18tik 21ra jokatuko da txapelketa, Txekiar Errepublikan, eta junior mailan lehiatuko dira. **HITZA**

## Irudia ◉ Ibarra



## LAUBURUREN FITXAKETAK

Ibarrako Lauburu areto futbol taldeak bi jokalaria eta prestatzaile bat fitxatu ditu, denboraldi berrirako. Batetik, Joseba Balerdi atezaina eta Unai Labaka hegaleko jokalaria, eta bestetik Cesar Roca prestatzailea izango dira bigarren B mailan lehiatzen. Rocaren itzuler nabarmendu dute, «ederki prestatuiko entrenatzailea izateaz gain, Gipuzkoako curriculum onenetakoa duena delako». **HITZA**

# Hasi dira Joxean Tolosa Txapelketako lehen pilotakadak

Alegiako pilota txapelketako finalak jokatu dituzte; Oiarbide-Aizpuruk eta Artola-Tolosak irabazi dute

## I. Terradillos

Intxurre Pilota elkarteak antolatutako pilota txapelketak baditu dagoeneko irabazleak. Kadeteetan Oiarbide-Aizpuruk jantzi dute txapela, eta nagusien mailan, Artola-Tolosak. Oiarbide-Aizpuruk 22-15eko emaitzarekin irabazi dute Egiburuko Eskuderoaren aurka, eta Artola-Tolosak ere 22-15 irabazi zuten Etxaniz-Aizpururen aurka.

Bestalde, asteburu honetan hasi da Joxean Tolosa Pilota Txapelketa. Zazpi Iturri elkartetik nabarmendu dutenez, Oñederak sake ikusgarria duela erakutsi zuen, eta Peñak asko jokatu zuen, «aurkari bat baino gehiago beldurtuta utziz». Bestalde, Elordi eta Elizalderen artekoa izan zen, azaldu dutenez, asteburu honetako partidarik onena, «Elizalderen borrokarako gogoak erabaki zuelarik partida bere

## ↓ Emaitzak

## JOXEAN TOLOSA TXAPELKETA

## Kadeteak

Oñederra (Azkoitia)	18
Zubeldia (Amezketza)	1
Azkonobieta (Lazkao)	14
Egiguren (Tolosa)	18
Martinez (Bera)	9
Urizar (Markina)	18
Etxebarria (Lemoa)	6
Peña (Tolosa)	18
Beloki (Bedaio)	18
Erauskin (Berrobi)	10

## Gazteak

Elordi (Mallabia)	16
Elizalde (Erreka)	18
Arregi (Amurrio)	3
Zubiria (Berrobi)	18

## Nagusiak

Jauregi (Zarautz)	11
Arratibel (Ataun)	18

alde». Arratibel, berriz, sendo aritu zela esan dute, nahiz eta hainbat opari egin: «Gustagarria da mutil hau pilotan jokatzen ikustea».

◉ [alegi@hitza.info](mailto:alegi@hitza.info)

# Barriola eta Martinez Irujo, San Fermin Txapelketako irabazle

## I. Terradillos Leizta

Abel Barriolak eta Juan Martinez Irujok irabazi dute San Fermin Pilota Txapelketa, atzoko finalean Olaizola II.a-Beroiz garaitu ostean. Iberokoak eta leitzarrak parti-

da bikaina egin zuten, eta 22-18 irabazi zuten.

Bengoetxea VI.a, bestalde, leisionatu egin zen larumbatean Ardoaren Desafioa txapelketan. Txapelketa berean, baina bakaraka, Jaunarenak 22-15 irabazi zuten Idoateren aurka.

# Berrobi Gipuzkoako Giza Proba finalerako sailkatu da

## I. Terradillos Berrobi

Aiztondorekin batera abuztuaren 4an Aian jokatuko den Gipuzkoako Giza Proba Txapelketako finalean izango da Berrobi larumbateko kanporaketan bigarren geratu ostean. Orio izan zen garailea, eta bi talde horiek A multzotik sailkatu direnak. B multzotik sailkatu direnen artean ere bada eskualdeko ordezkaririk, Aiztondo, hain zuzen. Zizurkilek ere parte hartu zuen multzo honetan, baina ez da finalerako sailkatu. Urretxu da Aiako finalean ariko den laugarren taldea.



Julen Castañeda. REALSOCIEDAD.COM

# Julen Castañeda futbolari tolosarrak Ponferradinan jokatuko du

## I. Terradillos Tolosa

Realak eta SD Ponferradinak akordioa lortu dute Sanseko atzelaria den Julen Castañeda tolosarrak bigarren mailan ari den Leongo taldean jokatzeko. Klub txuri urdinak erosketa aukera gordetzen du 2014ko ekainaren 30a baino lehen egiteko. Julen Castañedak hurrengo udan jokatzen zuen kontratua.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneitz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK

**Galtzaundi euskara taldea**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Tolosaldeak idatzi du bere epaia

Herrira-k antolatutako 'Herritarren epaia' egitasmo ibiltaria Tolosako Trianguloa plazan izan da

**ITZEA URKIZU** Tolosa

Tolosan izan da *Herritarren epaia* izenburupean, Euskal Herriko 80 herritatik igaroko den egitasmoa; besteak beste, euskal gizarteak 197/2006 edo Parot Doktrinari bere epaia ematea da helburua, eta izako uztailaren 10ean Estrasburgoko Auzitegiak emandako epaiarekin bat egitea. Auzitegiak, doktrinak Giza Eskubideen Europako Konbentzioa urratzen zuela ebazti zuen. Honekin batera, gogoan izan zuten Pello Odriozola preso tolosarra, Parot Doktrina aplikatu eta 10 urtez luzatu baitzioten espetxe zigorra.

Horrela, kaleko herritarrekin batera, Tolosako nahiz Tolosaldeko eragile, kirolari eta kultur arloko kideak elkartu ziren Trianguloan. Bertsolariak, lasto altaxatzea, Ubeda anaien kantaldia, eskualdeko hainbat dantzari,... Azken zatian, Kike Amonarrizzen saioa, herri kirolak, eta Maialen eta Ane zizurkildarren kantaldiaz gozatu ahal izan zuten bertaratuek. Oholtzako jardueraz gain, edari eta mokadutxoak ere eskaini zituzten, eta egitasmoaren berri emateko panelak ere baziren. Azkenik, herritar bakoitzak bere epaia emateko aukera izan zuen Euskal Herria zeharkatzen ari den koaderno erraldoian.

Datorren irailaren 14an Iruñeko Anaitasunan ospatuko duten ekitaldian osatuko dute epaia ekarpen guztiak.



Tolosaldeko eragile, kirolari eta kultur arloko kideek parte hartu zuten egitasmo ibiltarian. ITZEA URKIZU



Euskal Herriko 80 herritatik pasako da, 'Herritarren epaia' egitasmo ibiltaria; larunbatean izan zen, Tolosan. I.U.



## Agurrak



### Urte askoan!

**Enaitz.** Gaur 8 urte! Ondo pasa eta muxu asko etxekoan partetik.

## Agenda

### GAUR

#### JAIAK

■ **Alegia.** Karmen jaien azken egunean, 09:00. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko Diana izango da, eta 3X3 Saskibaloitxapelketa eskolako patioan. Infantil eta alebin mailakoan artean. 12:00. Los Tenampas hirukote mariatxiaren emanaldia plazan. 18:00. Ume jolasak eta merienda plazan. 19:45. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren emanaldia, eta 21:00. Zahargardoa plazan. 22:30 Kupela taldearekin dantzaldia plazan. 00:00. Txintxarrien hotsarekin jaien amaierako Agurra.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**KARIBERA**  
joan nahi al duzu?

**Maukarekin**  
Karibera doan joan zaitetzke!  
Izena eman hemen eta parte hartu  
Karibera aste bate doan  
joateko zozketan.

zozketa.mauka.eu

mauka berria

www.mauka.eu

**Mauka berria**

**Euskarazko 4 dvd pelikula sorta!**

TINKO FILMEAK S.L.  
Juan Formin Gilsagasti, 2 - 209 bulegoa  
DONOSTIA 20018 - DONOSTIA  
Tel.: 943-31 00 36  
www.tinkoekusara.org

Prezioa **15€**

**www.mauka.eu**

**berria** taldea